

DONOSTIAKO UDALBATZAREN ORGANO ARAUDIA ALDATZEKO ARAU-PROPOSAMENA: UDAL ORDENANTZA PRESTATZEARI BURUZKO AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen gaineko 39/2015 Legearen 133. artikuluan aurreikusitakoa aintzakotzat hartu eta herritarrek arauak egiteko prozeduran parte-hartzea hobetzeko asmoz, KONTSULTA PUBLIKOA egin behar dugu ordenantza proiektua egin baino lehen. Udalaren web-atariaren bidez egingo dugu kontsulta, eta bihar-etzi izango den arau horrek gehien eragiteko moduko pertsona eta antolakunde ordezkagarrienen iritzia jasoko dugu, alderdi hauei buruzko iritzia, zehazki:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Arau bidezko eta arauz besteko irtenbide posibleak.

Hala, bada, galdetegi bat planteatu dugu, hizpide dugun arau honen hartzaile izan daitezkeenek daukaten iritzia emateko izan behar duten informazioa duena.

Egoki irizten dioten herritarrek, erakundeek eta elkarteek 15 egun balioduneko epea izango dute, iragarki hau Udalaren webgunean argitaratzen denetik hasita, planteatutako alderdiei buruzko iritzia emateko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako tokietako batean:

a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

Udalaren batzorde iraunkorretan eta batzorde ez-iraunkorretan egindako lana oso garrantzitsua da erakundearen funtzionamendu demokratiko normalerako. Horietan partekatzen den informazioak eta dinamikek, izan ere, Udalbatzaren bilkuretan eta udal-gobernuaren zein oposizioko taldeen erabakietan gertatzen dena ulertzen laguntzen die parte-hartzaileei eta behatzaileei.

Gaur egun, ateak itxita egiten dira batzordeak, eta, noizbehinka, kazetariei sartzen uzten zaie, baina ezin dute bideoa edo soinua grabatzeko gailurik erabili. Hori anomalia bat dela esan daiteke; izan ere, hainbat erakundek modu gardenagoan funtzionatzen du, eta zuzenean transmititzen dio edukia publikoari, bideo eta audio bidez. Horrela da, adibidez, Gipuzkoako Batzar Nagusietan.

Hala, aurrera eraman nahi dugun arau aldaketa honen bidez, herritar guztiei sarbidea eta erakundeari gardentasuna eman nahi diogu.

b) Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.

Teknologia berriak eskuratzeko eta ezartzeko erraztasunaren ondorioz, nahi duten herritar guztiek daukate Udalean jarduna jarraitzeko modua. Eta erakundeak, izan behar diren baliabideak badituenez, malgua eta gardena izan behar du, eta osoko bilkurak eta batzordeak bide batetik baino gehiagotatik jarraitzeko modua eman.

c) Araua jartzeak dituen helburuak.

Osoko Bilkuraren Organo Araudia aldatzeko arau-proposamenaren helburu nagusia da Donostiako Udalean egiten diren batzordeak eta lanak irisgarriago eta gardenago izatea herritarrentzat eta hala nahi dutenentzat.

d) Arau bidezko eta arauz besteko irtenbide posibleak.

Batzordeak publikoak izan ala ez Osoko Bilkuraren Organo Araudian jartzen da, eta, beraz, den irtenbide bakarra hura aldatzea da.

Victor Lasa,

Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea